

# Barrikakada urte



**Jakoba Errekondo**  
jakoba@bizibaratzea.eus

Jende askoren galdera da urteen poderioz zergatik edari batzuk aldatzen diren eta beste batzuk ez. Erantzuna motza eta zehatza da, baina bide luzeak ireki eta era askotara loratzen diren barrena gozatzeko aukera ematen du. Erantzuna motzean: hartzitzen diren edariak etengabe aldatzen joango dira (sagardo, ardo...), garapen horretan ondu, hobetu, mindu, ozpindu... Denetik gerta daiteke. Hartzitu orde, egosi eta irakinarazitako edarietan (destilatuak, patxarana...) behin botilaratuz gero ez dira gehiago aldatuko.

Eta edari horietako bati segika, bide luze horietako bat dugu gaurko hau: Rhin ibai aldera joko dugu. Ibai horren gune historikoenetako batean dago, bertakoen hizkuntzan Strossburi, guretzat Estrasburgo dena. Hango ospitale edo eritegi nagusiaren gunera goaz. Bertan, administrazio eraikin baten bazter batean ezkutu samarrean dagoen eskailera irten baten hegaletik ate bikoitz batera iritsiko gara. Ate horren atzean dagoen katakonba antzeko harpeko sotoru sartu eta begiak ohitzean aurkituko duguna historikoa da.

Upategi bat da, 1395ean eraikia, eta bai, gudaz guda, gaur arte zutik iraun du. Upel izugarriak daude han, XVIII. eta



JONATHAN M-CC BY SA

XIX. mendekoak gehienak, 1881ekoa da 26.080 litroko bat, baita 1727ko dolare ikusgarri bat ere. Hantxe dago inon ezagutzen den zurezko barrikan dagoen ardo zaharrena: burdin hesi baten atzean, 1472 dioen 450 litroko barrika. Barrika hori beteta dago, orduan beteta, hau da 545 urteko ardo du. Denboraren poderioz ontzen bada ardo, hau gutizia ederra izango da. Ardo zuria da, lurralde haietan, preziatuena. Itxuraz, hirutan besterik ez dute dastatu izan hango elixir hori: 1576an, 1716an eta 1944an, Bigarren Mundu Gerran hiria askatu zutenean.

Upategian museo ttiki bat jarri dute, baita ardo saltzen ere, esan didatenez

*1395ean eraiki zuten Estrasburgoko erietxean dagoen upategia.*

moduz eta ona. Ardogile alsaziar jakin batzuek bere ardo upategi horretan ontzeko baimena dute, eta ardo hori da saltzen dutena; haiek ere diote munduko onena dela... 150.000 botila dauzkate, eta eskuratzen duten dirua ospitalearen beharretara bideratzen da.

Bertaratzeko bidea zaila omen da. Galdetuz iritsiko naiz neu ere egunen batean, eta urteko ardo edanez 545 urteko barrikari begira bekaizkeriak erreko nau. ■

**Baztanen nekazaritza herrikoi eta iraunkorra**

Argazkia: Foto Mena

**Baztango Udala**  
[www.baztan.eus](http://www.baztan.eus)